

# ZER BARRI HEMEN? AURTENGOZ AMEN

*Doinua: "Puntura"*

**1**

- Aurten Bizian Gora dago azkenetan
- Horretan jardun dogu hainbeste urtetan.
- Batetik gagoz pozik bestetik penetan
- Eta prest jarraitzeko beste hainbestetan.

**2**

- Gaur jarten badeuskue bakotxari nota?
- Txarra ta ona, ezin dana txartzat bota
- Nunahi txarra ta ona nahastean dagoz-ta
- Datorren urtean bai: Ordago bat jota

**3**

- Ez al gara ibilten atxaki ta guzur?
- Bide errezenera josten dogu samur.
- Egia, neurietan gehienetan labur.
- Zintzo jokatu daigun ta bestelan agur.

**4**

- Zer ete dino Juntak ta Arduradunak?
- Danen gaisetrik doguz barruko lagunak
  - Gu espabilatzeko gagoz zahar astunak
  - Hartu beharko dabez eskuan asunak.

**5**

- Gure Bizian Gora da gure bidea
- Zelango bizipoza zelango bakea!
- Hemen aurkitu dogu zorion betea
- Eta gure altxorra da Jesus maitea.

**6**

- Aztetu daigun zer egin dogu oker
- Hasi zuzen jokoan berandu baino lehen
  - Hauxe beste biderik ez dogula hemen
  - Danak esan aurretik esan gaigun AMEN.

A. Martzel